



2017

OROITIDAZKIA

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b>	<b>3</b>
<b>1. ERAKUNDEAREN JARDUERAK</b>	<b>5</b>
<b>2. JARDUERA AKADEMIKOA</b>	<b>20</b>
<b>3. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK</b>	<b>27</b>
<b>4. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK</b>	<b>30</b>
<b>5. WEBGUNEA ETA GIZARTERATZE LANA</b>	<b>37</b>
<b>6. BALANTZE EKONOMIKOA</b>	<b>39</b>

# AURKEZPENA



Xabier Kintana, idazkaria.

Eguneroko zeregin jarraikiak, beren monotonian maiz aspergarri gerta daitezke, eta horietan egunero dihardutenek aldizka beren ahalegin horien egiazko emaitzaz eta gizartean lortuko duten onespén edo mirespénaz inoiz zalantza egiteraino heltzen dira. Bada, ordea, gure atsotitzen artean, bat, jada 1596an Iruñean argitara emandako esaera zaharren bilduma anonimoan jaso, orduko bizkaieraz honelaxe dioskuna: *dindika murkoa betatu doa*, hau da ‘tantaka pitxerra betetzen da’, gutxika baina etengabeki egindako lanak azkenean bere fruitua ematen duela nabariarazteko.

Auzoko baserritar batek behin esan zidanez, *ekina gogorra da gero*, baina, egia esan, ez nion oso ongi ulertu horrekin zehazki zer esan gura zidan, hots, ekinaren ekinaz egiten den lana lan nekagarria eta latza izaten dela ala horrelako lanekin gauza handi eta harri-garriak lortu ohi direla eta isilean eta erdi ezkutuka egindako lan ilun asko, behin amaitu eta gero, biharamun argitsuan miresten eta aitortzen ditugula, eta hartan saiaturiko langileak goresten.

Ene ustez, Euskaltzaindiaren eta euskaltzainen lanak sarritan era horretakoak izaten dira, isil eta nabarmendu gabeak, baina bukatzen direnean, gainerako euskaltzain zein euskaltzaleen txaloa jasotzen dute. Euskaltzaindiak, bestalde, bere betekizuna ondo egiteko, beharrezkoa du egiten duen lana gizarte osoari erakutsi eta azaltzea. Alde batetik, euskarari buruzko azterketa, aurkikuntza eta lantze-lanak zabaltzeko, eta, bestetik, gure Akademia bere estatutueta jarririko zereginak nola betetzen ari den ikusarazteko, oraingo hedabideen agindupean komunikatzen eta orotara jakinarazten ez dena maiz gertatu ez balitz bezala gelditzen baita, gurean erdara eta erdal emaitzak bertoko kultur ekoizpen bakarrak balira bezala.

Euskaltzaindiaren ikusgarritasuna eta jendearekiko harremanak ezarri eta lantzeko bidean bereziki aipatzekoa da gure webgunea, aurreko urtean baino 37.658 bisita gehiago izan dituen (856.029 guztira, eta lau milioi baino gehiago bistaratze). Horri esker milioi bat kontsulta baino gehiago egin dira *Euskaltzaindiaren Hiztegi* eta Onomastikaren Datutegian. Horiez gainera, *Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa* ere eskegi da sarean, erabiltzaileen eskuan.

Kanpoko jarduerak ere egin ditu Euskaltzaindiak, kasu honeetan Nafarroan, bertako administrazioan toki izenak zuzenik erabiltzeko.

Hedabideek duten garrantzia azpimarratzeko, gerra garaian 1937an argitaratu zen lehen euskal egunkariaren sorrera gogoratu eta ospatu zen Euskaltzaindiaren egoitzan, bertan Bilboko alkateak eta euskal kazetaritzan arituriko profesionalek esku hartuz.

Otsailean, halaber, gaurko hedabideek euskaldunei informazioa euskaraz helarazteko dituzten erronkei buruzko ekitaldi batzuk antolatu ziren Euskaltzaindiaren egoitzan, arlo horretako profesional eta unibertsitateko irakasleekin.

Ekainean, halaber, oraingoan Sabino Arana fundazioaren ekimenaz, euskarak hizkuntza-politikaz eskuratu beharreko tokia-ri buruzko jardunaldia egin zen Ipar eta Hegoaldeko erakunde arduradunen partaidetasunaz.

Euskaltzaindiak, Laboral Kutxaren diru-laguntzaz, egiten diharduen *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*aren erakusketa antolatu zuen Bilboko egoitzan urrian, jende guztiari begira, informazioa emanaz.

Gabriel Arestiren *Euskal Harria* liburuaren 50. urteurrena zela eta, urriaren 11n bilbotar poetari omenaldi bat eskaini zitzaion Euskaltzaindiaren egoitzan, euskaltzain, haren adiskide, miresle kantari eta beste lagun askoren laguntzarekin.

Azaroaren 17an Gasteizen Jagon jardunaldiak antolatu ziren euskaltzainburuaren, Igone Martínez de Luna Arabako Kultura diputatuaren, Iñaki Prusilla Gasteizko Kultura zinegotziaren, Sagrario Aleman Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeburuaren eta Roberto Gonzalez de Viñaspre Euskaltzaindiaren Arabako ordezkariaren partaidetasunaz; beren ondoan Eusko Jaurlaritzako eta beste hainbat erakunde eta udaletako ordezkari eta teknikariak ere izan ziren, Araban euskarak duen egoera eta bilakabidea aztertzeko.

“Euskara ibiltaria” erakusketa Baionako Euskal Museoan (irailaren 11n) eta geroago (urriaren 6tik 31ra) Nafarroako Parlamentuan antolatu zen.

Adolfo Arejita EHHA egitasmoaren arduradunak argitu zituen beronen mamia, berezitasunak eta garrantzia, eta baita Hizkuntz Atlasarekin egin eta egiten diharduten lana ere.

Era berean, Baionako Euskal Museoan “Pirinioetako Hizkuntzak” erakusketa antolatu zen, azaroaren 20tik abenduaren 17ra arte. Andres Urrutia euskaltzainburua eta Guy Mondorge akademikoa izan ziren aurkezpenaren egunean eta Pirinioen alde bietako hizkuntzen garrantzia azpimarratu zuten.

Durangon urtero Gerediaga Elkartek antolatzen duen Euskal Liburu eta Diskoen Azokaren inguruan, eta Eliza Ebanjelistaren partaidetasunaz, Euskaltzaindiak bere Bibliotekatik Leizarragaren 1571ko *Testamentu Berriaren* ale bat utzi zuen, jende guztiak jatorrizko liburua mirets zezan.

Euskaltzaindiak, Bilboko Udalaren laguntzaz, musika kontzertu ziklo bat antolatu zuen Bilboko egoitzan urria eta azaro artean, “Astelehen buruzuriak” izenpean, hor Aitor Gorosabel, Xabier Bastida, Maisha, La Basu, Niko Etxart, Gorka Urkizu, Inun eta Anari euskal musikari ezagunek parte hartu zuten.

Bestalde, Euskaltzaindiak joan zen urtean hainbat liburu eman zuen argitara, bere batzorde eta lantaldeek prestatuak. Hona izenburuak: *Sestaoko toponimia*, *Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa*, *Kimikako oinarrizko lexikoa*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (VIII. liburukia), *Amiküzeko (h)eskuara*, eta *Sierra de Tolón, nexo de la Montaña y la Rioja Alavesa*.

Halaber, azaroaren 11n Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan *Erlea* literatur aldizkariaren 11. zenbakia aurkeztu zen, Bernardo Atxagaren ardurapean.

Beste ospakizun bat Xalbadorren Eguna izan zen, 2004. urtean hasita urtero ospatu ohi dena, iaz Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak antolatua.

Era berean, iaz, Saran, Bilbon eta Durangon izandako liburu azoken berri ematen da.

Aurten ere heriotza eta galtze mingarriak izan ditugu: Piarres Charriton, euskaltzain emeritua; Marijane Minaberri, ohorezko euskaltzaina; Hiazinto Fernandorena, euskaltzain urgazlea eta Luis Mari Mujika Urdangarin, euskaltzain urgazlea.

Azkenean, jarduera akademikoaren berri eskaintzen da, Iker eta Jagon sailena, bakoitzaren lan eta emaitza nabarmenenak, bai eta zerbitzuak xeheki azalduz.

Aipatzekoak dira, halaber, Akademiak Euskal Herriko beste erakundeekin eginiko eta sinaturiko hitzarmenak (Bilboko, Iruñeko eta Gasteizko udalak) Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin, Euskarabidearekin, Kutxa Fundazioarekin, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin, Eusko Legebiltzarrarekin, Baionako Euskal Museoarekin edo Udako Euskal Unibertsitatearekin.

Bukatzeko, Akademiak balantze ekonomikoa eskaintzen du, gizartetik jasoriko diru-laguntzak nola administratu ditugun argi erakusten duena.

# 1. ERAKUNDEAREN JARDUERA





## I. BARNEKO JARDUERA

**E**uskaltzaindiaren akademia-jarduera batzorde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko Osoko bilkurek arau maila ematen diete batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Lau urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariak ere izaten dituzte batzordeek. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta hainbat esparrutako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutuetoako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste.

Euskaltzaindiko Osoko bilkurek, hilean behin egiten direnek, batzorde akademikoetatik datozen hizkuntza-proposamenei arau gradua ematen diete. Batzorde akademikoak egoitzan edo lurraldeetako ordezkarietan biltzen dira. Idazkariordearen zeregina da batzorde horien jarraipena eta koordinazioa aurrera eramatea.

Euskaltzaindiak egoitza Bilbon dauka. Osoko bilkurak eta Zuzendaritza batzordearen bilerak, normalean, egoitzan eta Donostiako ordezkarietan egiten dira, nahiz eta, zenbait kasutan, erakunde edo elkarte batzuen gonbita onartzen den, eta horien egoitzetan bilera batzuk ere burutzen diren.

Zuzendaritza batzordea hamabostero biltzen da. Honen kideak dira euskaltzainburua, euskaltzain buruordea, idazkaria, Iker eta Jagon sailtako buruak, kudeatzailea eta idazkariordea. Haien zeregina da Euskaltzaindiaren funtzionamendu ona bermatzea. Kudeatzaileak eta idazkariordeak, jorratu beharreko gaien arabera, arduradun bakoitzarekiko koordinazio-lanak burutzen dituzte. Zuzendaritza batzordeak 2017an 19 bilera egin ditu.

### I. 1. Erakundearen 2017ko ekintza nagusiak

HILABETEA	EGUNA	TOKIA	JARDUERA
Urtarrila	27	Donostia	Osoko bilkura
Otsaila	24	Bilbo	Osoko bilkura
Martxoa	30-31	Bilbo	Barne Jardunaldiak
Maiatza	26	Iruñea	Osoko bilkura
Ekaina	30	Baiona	Osoko bilkura
Urria	6	Iruñea	Osoko bilkura
Urria	27	Gasteiz	Osoko bilkura
Azaroa	24	Donostia	Osoko bilkura
Abendua	22	Bilbo	Osoko bilkura



## I.2. Webgunea

Euskaltzaindiaren webguneak 856.029 bisita izan ditu 2017an (2016an baino 37.658 gehiago) eta 4.024.707 bistaratze. Era berean, Akademiaren atari digitalean gehien bisitatu diren edukiak *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (1.732.878) eta Euskal Onomastikaren Datutegia (921.254) izan dira.

2017an *Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa* eskegi zen sarean, erabiltzaileentzat doakoa dena.

## II. KANPOKO JARDUERA

### JARDUNALDIAK ETA MINTEGIAK

#### II. 1. Otsailaren 7an, administrazioan toponimia zuzen erabiltzeko ikastaroa antolatu da Burlatan

Jada bost aldiz egin den jardun hau Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarearen, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskaltzaindiaren elkarlanaren fruitua da. Patxi Salaberri, Idoia Zabaltza, Mikel Gorrotxategi, Felix Murgutza eta Patxi Galék parte hartu dute ikastaroan.

#### II. 2. Euskal prentsaren hastapena, oraina eta geroa

Otsailaren 10ean *EGUNA* lehen euskarazko egunkariaren sorrera gogoratzeko jardunaldia antolatu zen. Aipatu egunkaria Gerra Zibil betean sortu zen, 1937ko urtarrilaren leian eta egoitza Bilboko Posta kalean izan zuen. Sei hilabetetan zehar inprimatu zen, zehatz esanda, Francoren gudarosteak Bilbo okupatu zuen arte.

Jardunaldi horretan *EGUNA* egunkariaren testuingurua eta ezaugarriak aztertu nahi izan dira, eta horrekin batera, beren jarduna euskaraz garatzen duten hedabideen etorkizunari buruz hausnartu. Helburu horrekin hainbat adituk parte hartu dute: Joan Mari Torrealdai euskaltzain eta soziologoa; Luis Alberto Aranberri 'Amatiño', Idurre Eskisabel, Odile Kruzeta, Jaber Onaindia eta Urtzi Urrutikoetxea kazetariak; Joseba Agirreazkuenaga eta Xabier Altzibar ikerlariak eta Adolfo Arejita euskaltzaina.

Hasierako ekitaldian izan dira Juan Mari Aburto, Bilboko alkatea, Andres Urrutia, euskaltzainburua, eta Juan Mari Atutxa, Sabino Arana Fundazioko presidentea.



Jardunaldian parte hartu zuten hizlariak.



### II. 3. Euskal Hedabideak itun bila

Jardunaldia Euskaltzaindiak eta Hekimenek (Euskal Hedabideen Elkartea) antolatu dute otsailaren 22an. Jardunaldiaren zioetako bat zera galdetzea izan da: posible al da euskarazko hedabideen eta herri-erakundeen artean itun zabal bat adostea, modu horretan, euskaldun orok informazioa euskaraz jasotzeko duen eskubidea bermatu ahal izateko? Halaber, euskal hedabideek gaur egun bizi duten egoeraz eztabaidatu da.

Jardunaldian honako hauek parte hartu dute:

- Estibaliz Alkorta Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Sustapenerako zuzendaria
- Alberto Barandiaran Hekimeneko zuzendaria
- Jone Goirigolzarri eta Xabier Landabidea, Deustuko Unibertsitateko irakasleak
- Libe Mimenza, Euskal Hedabideen Behatokiko kidea



Jardunaldian hainbat kazetarik hartu zuen parte.

### II. 4. Ekainaren 12an Euskaltzaindiak Toponimia jardunaldia antolatu du Baionan

Euskaltzaindiak Toponimia mintegia antolatu du Baionan. Beste gai askoren artean, honako hauek jorratu dira: Hazparne Lurraldeko proiektuaren aurkezpena eta Donoztiriko adibidea; Euskal Elkargoaren beharrak toponimia arloan; IGN erakundeak eramaten dituen lanak; eta, Euskaltzaindiaren lana toponimia arloan.





## II. 5. “Euskarak tokia hartu ahal izateko hizkuntza politikaz” jardunaldia

Hizkuntza politikaren eremuan Ipar eta Hego Euskal Herriko arduradun nagusiak bildu dira ekainaren 14an, lehenengoz, Sabino Arana Fundazioak (SAF) eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatu duten jardunaldian.

Egitasmoa SAF-ek Bilbon duen egoitzan burutu da helburu bikoitz batekin: batetik, arlo honetan herri erakundeek dituzten asmoak eta ildoak ezagutzea; bestetik, erakunde horiek dituzten lankidetzaz aukerak aztertzea.

Bertan izan dira, besteak beste, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Miren Dobaran sailburuordea, Mikel Arregi Nafarroako Gobernuako Euskarabideko zuzendari nagusia edo Mathieu Bergé Euskararen Erakunde Publikoko lehendakaria.



Jardunaldian aditu talde garrantzitsua bildu zen.

## II. 6. Euskara gaitasuna lantzeko tailerra eman du Miriam Urkiak UEUn

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) urtero antolatzen dituen ikastaroen barruan, euskara gaitasuna lantzeko tailerra eman du Miriam Urkia euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren Hiztegiko lantaldeko buruak, Christian 'Antton' Harignordoguy AEK-ko irakaslearekin batera. Tailer hau Baionan egin da, uztailaren 6an, Euskararen Erakunde Publikoaren egoitzan.

Honako hauek izan dira ikastaroaren helburuak: frantsesak eragindako zenbait kalko arruntez ohartaraztea; hiztunek izaten dituzten hainbat zalantza eta arazori erantzuteko baliabideak ematea; erreferentziatzeko dokumentuetan nola bilatu erakustea; eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia* ezagutzea eta erabiltzen ikastea.

## II. 7. Herri Hizkeren Atlasari buruzko mintegia antolatu du Euskaltzaindiak urrian

Ondareari buruzko Europako Jardunaldien barruan antolatu dira ekitaldi biak, euskaraz eta Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan egin dira.

Mintegi honek bi helburu bete nahi izan ditu: batetik, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA) azaltzea, eta, bestetik, Bizkaiko kasurako lehen hurbilketa egitea.



## II. 8. Arestiren *Euskal Herria* argitaratu zela 50 urte

Urriaren 11n, “Gabriel Arestiren *Euskal Harriak* 50 urte” jardunaldia izan da. Arestiren *Euskal Herria* poema bildumaren 50. urteurrena zela-eta, idazle bilbotarraren lana gogoratzeko, jardunaldi berezi bat antolatu dute Euskaltzaindiak eta Gabriel Aresti kultura elkarteak.

Ekitaldia Euskaltzaindiaren Bilboko Plaza Barriko egoitzan izan da. Saioari harrera eta ongietorria Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Xabier Monasterio Gabriel Aresti kultura elkarteko zuzendariak egin diote.

Lehenbiziko hitzaldia Xabier Kintana euskaltzainak eman du “Aitaren etxeko atea mundura ireki zigun bilbotar poeta” izenburupean. Jarraian, Jon Kortazar Euskal Herriko Unibertsitateko Literatura katedradun eta ikerlariak Arestiren lehenengoetariko lana izan zen *Mailu batekin, biola batekin* obra aztertu du.

Andoni Egaña bertsolariak ere parte hartu du jardunaldian. Arestik ahozko tradizioa eta modernitatearen arteko zubia eraikitzen egindako ahaleginez mintzatu da bertsolari zarauztarra.

Arratsaldeko saioan, Bernardo Atxaga eta Arantxa Urretabizkaia Arestiren figurari buruz solasean aritu dira. Horrekin batera, Joseba Sarrionandiak ekitaldirako bidalitako testu bat irakurri da. Idatzi horretan, Sarrionandiak Xose Neira idazle galiziarra eta Gabriel Aresti jartzen ditu harremanetan. Arestik marinela brasildar batekin topo egin zuen Bilboko moilan. Enkontru hura baliatu zuen, marinelen bitartez, Arestiren zenbait liburu Habanan bizi zen Neirari eraman ziezazkion. Sarrionandiak Neiraren Habanako etxean aurkitu zituen liburu horiek eta bitxi egin zitzaion Arestik liburu guztietan egiten zuen eskaintza: *Euskal Herria izango da hurrengo Vietnam*.



Jardunaldian parte hartu sortzaileak; Juan Mari Aburto, Bilboko Alkatearekin; Xabier Kintana, Euskaltzaindiko Idazkariarekin; eta Andres Urrutia, euskaltzainburuarekin.



## II. 9. XXII. Jagon jardunaldia:” Euskararen egoera Araban”

Azaroaren 17an egin den jardunaldiko sarrera-ekitaldian honako hauek izan dira: Andres Urrutia euskaltzainburua; Igone Martinez de Luna Arabako Kultura foru diputatua; Iñaki Prusilla Gasteizko Udaleko Euskara zinegotzia; Sagrario Aleman Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeburua, eta Roberto González de Viñaspre Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaria.

Jarraian, euskarak Araban bizi duen egoeraz hausnartzeko mahai-ingurua izan da. Bertan parte hartu dute:

- Agurtzane Ortiz de Landaluze Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikaria.
- Asier Etxenike Aztiker-eko zuzendaria
- Olatz Altuna Soziolinguistika Klusterreko teknikaria eta 2016an egin zen euskararen kale-erabileraren neurketaren arduraduna.

Ondoren, Arabako hainbat udaletako euskara teknikarien txanda izan da. Bere eguneroko lanean dituzten erronkez eta arazoez jardun dute. Halaber, euskaltegietako zenbait irakaslek eta euskararen alde lan egiten duten elkarteetako hainbat kidek hizkuntza suspertzeko abian jarri dituzten ekimenen berri eman dute.

Bukatzeko, euskara sustatzerako orduan hedabideek duten garrantziaz ohartarazi dute hainbat kazetarik eta adituk.



XXII. Jagon jardunaldia Gasteizen, Artium jauregian, egin zen.



## ERAKUSKETAK ETA KULTURA-ZIKLOAK

### II. 10. “Euskara ibiltaria” erakusketa Baionan

Irailaren 11n, Euskaltzaindiak *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa* (EHHA) egitasmoa oinarritzat duen erakusketa inauguratu du Baionako Euskal Museoan. Erakusketa urriaren 1a arte egon da irekia. Erakusketa horretan arreta berezia jarri da Ipar Euskal Herriko grabazioetan jasotako informazioan (formak, berezitasunak, berriemaileak, audioak...). Orain arte, “Euskara ibiltaria”ren lau edizio egin ditu Akademiak: Beasainen, Portugaleten, Bilbon eta Iruñean, hain zuzen.

### II. 11. Nafarroako Parlamentuak hartu zuen “Euskara ibiltaria” erakusketa

Urriaren 6tik 31ra bitartean, Nafarroako Parlamentuaren egoitzak hartu du “Euskara ibiltaria” erakusketa. Aurkezpen ekitaldian, Adolfo Arejita euskaltzain eta EHHAren zuzendariak adierazi du erakusketa hau “gogoz baina zorrotzasunez eginiko hautaketa bat” dela, hain zuzen, “mapa bakoitzak fenomeno linguistiko bereziren bat” erakusten duelako: sinonimoen eta aldaera nagusien banaketan kontzeptu batetik bestera diren berezitasunak ageri dituzte. “Mapa kopuru mugatu honen bidez –azpimarratu zuen Arejitak–, animalia, landare, denbora eta ohiko kontzeptu orokorrak euskal hizkeretan barrena nola adierazten diren erakutsi nahi izan da”.

Honela, “hizkuntza-atlasean oinarrituta dagoen “Euskara Ibiltaria” erakusketak euskararen batasun eta aniztasunaren erakusgarri izan nahi du. Euskal hitzen ezaugarriak, hiztunen arteko harremanaren eta kasu batzuetan isolamenduaren bidez gauzatu dira belaunez belaun. Hain zuzen, horrek erakusten du izenen arteko batasuna edo aniztasuna”, gaineratu du EHHA egitasmoaren arduradunak.

Ainhoa Aznárez Nafarroako Parlamentuko lehendakariak ere hitz gozoak erabili ditu bere sarrera-hitzaldian: “Erakusketa interesgarri honek gure historiaren zati bat eskaintzen die gure hiritarrei, altxor izugarria, estreinakoz aurkeztzen dena gure Foru Erkidegoan, eta ohore bat da nafar guztien etxea den leku honetan egitasmo hau hartzea”.



Erakusketaren aurkezpen-ekitaldia.



## II. 12. “Pirinioetako Hizkuntzak” erakusketa antolatu dute azaroan Euskaltzaindiak eta Euskal Museoak

Katalanaren, okzitaniaren, aragoieraren eta euskararen ezaugarriak eta bilakaera erakusten dituen erakusketa zabala antolatu du Euskaltzaindiak Baionako Euskal Museoan.

Erakusketa azaroaren 20tik abenduaren 17a arte izan da ikusgai. Egitasmo hau Euskaltzaindiak Baionako Herriko Etxearekin eta Euskal Museoarekin 2017rako adostutako ekimenen barruan kokatzen da.

Andres Urrutiak gaskoiz agurtu du Guy Mondorge akademikoa -"aditsatz"-, eta esan du hizkuntza aberastasun handia dagoela Pirinioetako bi aldeetan, erakusketa honek aditzera ematen duen legez.



Erakusketaren aurkezpen-ekitaldia

## II. 13. Euskaltzaindiak Leizarragaren *Testamentu Berria* erakutsi du Durangoko Kuruzesantu Museoan

Abenduaren 9an, 1571ko edizioaren ale bat utzi die Euskaltzaindiak Gerediaga Elkarteari eta Durangoko Eliza Ebanjelistari. Joanes Leizarraga apaizaren *Jesus Krist gure Jaunaren Testamentu Berria* euskal libururik ospetsuena eta estimatuenetakoa da. Nafarroa oraindik independente baten erregina legitimoak (Joana Albretek) agindu eta sustatu du itzulpen hau, eta bertan agertzen da idatzita eta editatuta, lehenengoz, *Euskal Herria* izena.

Andres Urrutia euskaltzainaren ustez: "Liburu hau zoragarria da, sekulako altxorra. Esaterako, euskara estandar antzeko bat egiteko ezagutzen dugun lehen ahalegina da, Albret erregina horretan tematu zelako".

Itzulpen honen hamabi ale inguru baino ez dira ezagutzen munduan, eta Euskaltzaindiak horietako hiru ditu (bi gordailuan).



Andres Urrutia, Leizarragak itzulitako lanaren azalpenak ematen.



## II. 14. Musika kontzertuak eta eztabaida zikloak: *Astelehen buruzuria*

Euskaltzaindiak, Bilboko Udalaren babesarekin, urri eta azaro bitartean musika kontzertu ziklo bat antolatu du *Astelehen buruzuria* izenburupean.

Kontzertu guztiak astelehenetan izan dira eta musikariek, beren kantak jotzeaz gain, hitzaldi labur batzuk eman dituzte beren jarduna euskaraz nola gauzatu duten azaltzeko.

Ziklo honetan parte hartu duten musikariak: Aitor Gorosabel eta Xabier Bastida (*Su ta Gar*), Maisha, La Basu, Niko Etxart, Gorka Urbizu, *Inun* eta Anari.

Ekimen horren bitartez, Euskaltzaindiak bere ateak ireki izan nahi dizkio publiko gazte eta euskaltzaleari.



Iñigo Astiz eta *Inun* solasean.



Aitor Bastida eta Oier Gorosabel (*Su ta Gar*).



Niko Etxart eta bere taldea.



## ARGITALPENAK

### II. 15. *Sestaoko Toponimia* liburuaren aurkezpena

Urtarrilaren 24an izan da aurkezpen ekitaldia, eta bertan azpimarratu da hau dela Sestaori buruz euskaraz idazten den lehen liburua.

Jorge Luis Tejedor egileak sei urteren buruan ikerketa lan zehatza egin du Sestaoko historia biltzen duen azken sei mendeetako dokumentazioa aztertuz. Egilearen hitzetan, 1870ean, Sestao 500 biztanle eskas zituen nekazari gune bat zen. Zazpi urte geroago, lehen industrializazioaren etorrerarekin, jada 4.300 herritar zeuzkan. Herriaren fisionomia irauli egin zen orduan, eta gaur egun ezagutzen dugun Sestaoren ezaugarriak finkatu ziren.

Aurkezpen ekitaldian parte hartu zuten Josu Bergara Sestaoko alkatea eta Adolfo Arejita euskaltzainak. Alkatea pozik agertu zen Tejedorren liburua aurkezteagatik eta udalerriari buruzko lana euskaraz argitaratzearen balioa nabarmendu zuen. Arejitaren aburuz, Sestaoko historia toponimiaren bidez azaltzeko gai den altxor baten aurrean aurkitzen gara.

### II. 16. Otsailaren 24an, euskararen eremuko bost ganberetako legegileek eta Euskaltzaindiak *Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa* aurkeztu dute

Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak duten elkarlanari esker egin da lana, eta, horretarako, bat egin dute Eusko Legebiltzarrak, Nafarroako Parlamentuak eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek. Aurkezpen ekitaldian parte hartu dute, hurrenkeran honetan, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Gotzon Lobera Hiztegi Juridiko-Parlamentarioaren lantaldeko koordinatzaileak, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak, Pedro Elozegi Arabako Batzar Nagusietako lehendakariak, Eider Mendoza Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariak, Ainhoa Aznárez Nafarroako Parlamentuko lehendakariak eta Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakariak. Hiztegiak 1.754 hitz eta esamolderen lan-corpora landu du, eta hortik 1.438 sarrera jaso ditu euskaratik gaztelaniara, eta 1.409 gaztelaniatik euskarara.

### II. 17. Euskaltzaindiak *Kimikako Oinarrizko Lexikoa* argitaratu du

*Kimikako Oinarrizko Lexikoaren* dokumentuak bi atal ditu:

- Euskara-atala, 1.171 sarrera dituena. Lantaldeak beharrezko iritzi dionean, informazio osagarriak gehitu dira, hala nola kategoria gramatikala, erabilera-oharrak, ohar semantikoak eta adibideak. Sarrera guztietan, ingelesezko (en), gaztelaniatzeko (es) eta frantsesezko (fr) ordainak argitaratu dira.

- Erdarak-euskara atala, hiru azpiatalez osatua (en-eu, es-eu, fr-eu). Euskaltzaindiak Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko egitasmoa abiarazi zuen (ZTHB) arlo teknikoetako erabilera berariaz aztertzeko eta oinarrizko lexikoak osatzeko. Egitasmo horren lehen emaitzak 2016an argitaratutako Matematika, Fisikako eta Astronomiako oinarrizko lexiko teknikoak izan dira. *Kimikako Oinarrizko Lexikoa* ere ildo beretik eta metodologia bera erabiliz egin da.



*Sestaoko Toponimia* liburuaren aurkezpena: Luis Alonso Pascual. Josu Bergara Sestaoko alkatea. Adolfo Arejita eta Jorge Luis Tejedor.



## II. 18. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren VIII. liburuen aurkezpena*

Aurkezpena ekainaren 30ean izan da Baionan.

Zortzigarren ale honek lexikoari dagozkion zenbait alor lantzen ditu: belardia, belar idorra, laboreak, uzta, mahastia, ardoa, sagardoa, ogia, bizkotxoak, sukaldekoak, garbiketa, lixiba, josketa, adabakiak, artilea eta lihoa, besteak beste. Liburukiarekin batera eduki berbera PDF formatuan kontsultatzeko aukera eskaintzen duen CDa ere editatu da.

Bigarren atal batean oinarritzko kategoría gramatikalak aztertzen dira, aditzarekin eta sintaxiarekin loturiko beste kontu batzuekin batera.



Atlasaren aurkezpen-ekitaldia.

## II. 19. *Amiküze eskualdeko (h)eskuara liburuaren aurkezpena*

Uztailaren 14an aurkeztu da Iñaki Camino irakasle eta ikerlariak idatzitako lan hau, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanaren argitaratu dena.

Liburu hau ikerketa lan sakon baten emaitza da, Nafarroa Behereko iparraldeko eta Zuberoako zenbait herritako euskararen azterketa jasotzen dituen. Donapaleu buru den eskualde honetan euskarak atzerakada nabarmena izan du. Hargatik, egileak beharrezko izan du pertsona adinduen mintzoa jasotzea Amiküze eskualdeko euskararen bereizgarritasun eta ezaugarri nagusiak bildu ahal izateko.



Andres Urrutia, Ana Ollo eta Iñaki Camino.

## II. 20. *Sierra de Toloño, nexo de la Montaña y la Rioja Alavesa liburuaren aurkezpena*

Euskaltzaindiak, azaroaren 22an, Sierra de Toloño, nexo de la montaña y la Rioja Alavesa liburuaren aurkezpen ekitaldia Gasteizko Artium museoan izan zen eta bertan izan dira: liburuaren egilea José Ángel Chasco, Estibaliz Alkorta Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Sustapenerako zuzendaria, Joseba Pérez de Heredia Arabako Kultura, Euskara eta Kirol zuzendaria, eta Roberto González de Viñaspre euskaltzain eta herrialde horretan erakundeak duen ordezkaria.

Lan honetan Chascok Toloño izendapena aldarrikatzen du, horrela jasoa baitago aztertu dituen hainbat iturritan: artxibo, literatura, mapagintza, margogintza eta abar. Lana IZENAK bildumaren 7. zenbakia izango da.



Estibaliz Alkorta, Joseba Pérez de Heredia, José Ángel Chasco eta Roberto González de Viñaspre.





## II. 21. *Erlea* aldizkariaren aurkezpena

Euskaltzaindiak, azaroaren 24an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan *Erlea* aldizkariaren 11. zenbakia aurkeztu du.

Zenbaki berri honek soinua du gai nagusizat eta Euskal Herriko plazetan jotzen duten soinulariak izan ditu kontuan, bai bertokoak, bai beste herrialde batzuetatik bertara etorriak.

Zenbaki honetan parte hartu dute, beste batzuen artean: Gotzon Barandiaranek, Castillo Suarezek, Ana Malagonek, Luigi Anselmik, Felix Ibargutxik, Miel Elustondok, Joxe Ramon Arbek eta Manolo Martínezek.



Joxean Goikoetxea, Mikel Irizar, Bernardo Atxaga eta Andres Urrutia

## OSPAKIZUNAK

## II. 22. Xalbador Eguna

2004. urteaz geroztik egiten den bezala, Fernando Aire *Xalbador*ren sorterri den Nafarroa Behereko Urepele herrian, haren omenezko jaialdia egin da 2017an ere. Horrez gain, aurten zendu den Jon Azpillaga bertsolaria omendu dute euskal kulturaren alde egin duen lan bikainagatik. Azpillagak eta Jon Lopategik osatzen zuten bertsolari bikotea oso ezaguna egin zen frankismoaren hondarretan eta trantsizioaren lehenengo urteetan.

Jaialdia urriaren 21ean eta 22an ospatu da, Deiadarra Elkar-teak eta Euskaltzaindiak antolatuta.



Jon Azpillagaren sendia 2017ko Xalbador Egunean.



## LIBURU AZOKAK

### II. 23. Liburu azokak

#### *Sara*

Apirilaren 17an, 35. Sarako Idazleen Biltzarrean, Euskaltzaindiak honako argitalpen hauek aurkeztu ditu:

*Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982. Euskal antzerki identitarioaren paradigmatik*, Isabelle Echeverriak idatzitako lana.

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Aurkezpena Euskaltzaindiaren Hiztegiaren lantaldeko Elizabet Kruzetak egin du. Aurkezpen ekitaldian egileekin batera egon dira Mathieu Bergé, Euskararen Erakunde Publikoko zuzendaria eta Andres Urrutia euskaltzainburua.

Aurten, lehenbiziko aldiz, idazleen biltzarra bi egunetan burutu da, apirilaren 16an eta 17an. Bertan omenduak izan dira: Piarres Charritton (euskaltzain emeritua), Mari-Jeane Minaberry (ohorezko euskaltzaina) eta Hasier Etxeberria (kazetaria eta idazlea).

#### *Bilbo*

Euskaltzaindiak ekainaren 1etik 11ra egin den Bilboko Liburu eta Disko Azokan parte hartu du. Saltokian Euskaltzaindiaren azken argitalpenak salgai izan dira.

#### *Durango*

Abenduaren 6tik 10era, orain arteko guztietan bezala, Euskaltzaindiak Durangoko Liburu Azokaren 52. edizioan parte hartu du. 2017an, bere argitalpen funtseko beste argitalpen batzuekin batera Akademiak bere azken nobedadeak aurkeztu ditu: *Erlea* aldizkariaren 11. zenbakia eta José Ángel Chascok idatzi duen *Sierra de Toloño, nexo de La Montaña y la La Rioja Alavesa*.



Euskaltzaindiaren liburuen aurkezpena Sarako Idazleen biltzarrean. Ezkerretik eskuinera: Elisabete Kruzeta, Andres Urrutia, Mathieu Bergé, Isabelle Echeverria eta Xarles Videgain.



Euskaltzaindiaren saltokia Durangoko Liburu eta Disko Azokan.



### III. BESTELAKOAK

#### HERIOTZAK

2017an hil dira:

- Piarres Charritton euskaltzain emeritua,
- Mari Jeane Minaberry ohorezko euskaltzaina,
- Hiazinto Fernandorena euskaltzain urgazlea eta
- Luis Mari Mujika Urdangarin euskaltzain urgazlea.

#### EUSKALTZAINAK ZENBAKITAN

Euskaltzainak	2016-12-31			2017-12-31		
	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Osoak	24	19	5	24	19	5
Emerituak	4	4	0	3	3	0
Ohorezkoak	34	30	4	33	30	3
Urgazleak	148	113	135	146	111	35
<b>GUZTIRA</b>	<b>210</b>	<b>166</b>	<b>44</b>	<b>206</b>	<b>163</b>	<b>43</b>

## 2. JARDUERA AKADEMIKOA





**E**uskaltzaindiaren akademia jarduera batzorde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko Osoko bilkurak arau maila ematen diete batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Lau urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariak ere izaten dituzte batzordeek. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta hainbat esparrutako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutu etako irakasleak, hezkuntza munduko irakasle euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, hedabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioetako teknikariak eta beste.

## IKER SAILA

### I. HIZTEGIGINTZA

Lexikografia ikerketak behar-beharrezkoak dira hizkuntza akademia baten jardunean. Bai *Orotariko Euskal Hiztegia* bai *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. *Adierak eta adibideak* etenik gabeko eguneratze prozesuan daude.

#### I. 1. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak

Hiztegi honen abiapuntua Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren batzordea da, orain Euskaltzaindiaren Hiztegiaren batzordea deitzen dena. 2016an argitaratu zen, paperean eta sarean, hiztegiaren edizio berri bat. 2017an zenbait zuzenketa egin (arreta berezia jarri da familiaren eta generoaren eredu sozial berriak aintzat hartzen dituzten definizioetan) eta sarrera, azpisarrera eta adiera berriak landu eta eguneratu dira.

#### I. 2. Orotariko Euskal Hiztegia egitasmoa

Duela gutxi argitaratu diren antzinako zenbait testu (XVI-XVII. mendeetakoak) eta bizkaieraz eta gipuzkeraz idatzitako XX. mendeko beste batzuk modu sistematikoan aztertu dira. Halaber, berrietatik eratorritako adibideak txertatu dira *Orotariko Euskal Hiztegian*. Orobat, Hiribarrenek eskuz idatzitako hiztegiaren aipuak (Lhanderen hiztegiaren bidez ezagutu izan direnak) originalarekin konparatu ondoren, berraztertu eta, zegoen kasuan, zuzendu edo aldatu egin dira.

### I. 3. Zientzia eta Teknika Hiztegia

Egitasmo honek 2008an hasi zuen ibilbidea, zientziaren eta teknikaren alorrean erabilitako terminologia aztertze eta biltzeko asmoarekin. Osoko bilkurari arlo horietako oinarritzko terminoen zerrenda aurkeztea da helburua, honek onartu ondoren *Euskaltzaindiaren Hiztegia* txerta daitezten.

2017an, alorreko espezialistekin elkarlanean, lurraren zientzietako eta meteorologiako alorretan gehitu beharreko terminoak hautatu dira, eta beraien eztabaida eta onarpena hasi da.

### I.4. Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa

Euskal hitzei buruz gaur egun arte egin izan diren ikerketa historiko eta etimologikoak oinarri hartuta, egitasmo honek modu sistematikoan aztertu nahi du euskal hitzen jatorria eta historia. 2017an burutu da hiztegiaren lehen edizioaren erredakzioa, eta prentsan dago jada: 200 hitz-familia jasotzen ditu, 2.550 hitzen informazio historiko eta etimologikoarekin.

### I.5. Lexikoaren Behatokia

Lexikoaren Behatokia Euskaltzaindia UZEIrekin, Elhuyar-ekin eta UPV/EHUko IXA taldearekin elkarlanean egiten ari den proiektu bat da, helburua testu etiketatuen corpus bat sortzea delarik, bai lexikoaren erabileraren azterketak egiteko, bai eta lexikoari dagozkion arauak eta gomendioak dokumentatzeko ere. 2017an, 65 milioitik gora hitz-testu aztertzerantz iritsi da Behatokia.

Proiektu hau garatu ahal izateko, Euskaltzaindiak hainbat hedabiderek hitzarmenak sinatu ditu. Hedabide horiek ekoizten dituzten testuak Euskaltzaindiaren esku jartzen ari dira, behar bezala etiketatuak eta katalogatuak izan daitezten.

## II. GRAMATIKA

2017an Batzordeak Euskararen Gramatika egitasmoan lanean jarraitu du. “Zenbatzaileak”, “Determinatzaileak”, “Adberbioa”, “Morfoloia: hitz-elkarketa”, “Diskurtso-markatzaileak”, “Juntadura”, “Mendeko perpaus helburuzkoak”, “Mendeko perpaus konparaziozkoak” eta “Mendeko perpaus ondoriozkoak” kapituluak osatu dira. Beste kapitulu batzuk ere idazten hasi dira: “Mendeko perpaus kontzesiozkoak”, “Aditza”, “Kasuak eta argumetuak”, “Postposizioak”, “Hitz-ordena eta euskararen sintaxia”, “Mendeko perpaus osagarriak” eta “Moduzko perpausak”. Horrez gain, JAGONET zerbitzuaren bitartez iritsi diren kontsulta linguistikoak erantzun dira.



### III. DIALEKTOLOGIA

#### III.1. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa

1986. urtean galdekizuna, inkesta-lekuak eta lan-metodologia zehaztu ostean, Euskaltzaindiak urtebeteko epean ekin zion inkestak egiteari Euskal Herriko 145 herri eta auzotan (73 EAEn, 27 Nafarroako Foru Komunitatean eta 45 Ipar Euskal Herrian).

2017an maketatzailearen esku jarri dira XI. liburukiari dagozkion materialak, guztiak egokitu eta inprentara bidaltzeko presta ditzan. Bestalde, I. eta VII. liburukietako soinu-artxiboak ere landu dira (45.000 erantzun baino gehiago etiketatu dira). Honez guztiaz gain, maiatzaren 26an, Euskaltzaindiak EHHaren VIII. liburukia aurkeztu zuen Baionan. Aurreko liburukiak bezalaxe, hau ere, Laboral Kutxaren laguntzarekin argitaratu da. Zortzigarren ale honek lexikoari dagozkion alorrak lantzen ditu: belardia, belar idorra, laboreak, uzta, mahastia, ardoa, sagardoa, ogia, bizkotxoa, sukaldakoak, garbiketa, lixiba, jusketa, adabakiak, artilea eta lihoa, besteak beste. Liburukiarekin batera eduki berbera PDF formatuan kontsultatzeko aukera eskaintzen duen CDa ere editatu da.

Bestalde, argitalpen honetako edukia ere jarri da kontsultagai Euskaltzaindiaren webgunean. Era berean, Atlasaren edukiak ezagutzera emateko asmoz, erakusketa bi antolatu dira urtean zehar: bata Baionan eta bestea Iruñean. Erakusketa hauek Laboral Kutxaren, Baionako Udalaren, Baionako Euskal Museoaren, Nafarroako Parlamentuaren, Nafarroako Gobernuaren eta hainbat hedabideren laguntzarekin antolatu dira.

### IV. ONOMASTIKA

#### IV.1. Onomastika batzordea

Onomastika batzordeak bere zereginen artean du izen, deitura eta toponimoen arautzea. Onomastika terminoen gainean ikertzeaz, aztertzeaz, irizpideak finkatzeaz eta aholkatzeaz arduratzen da. Izen eta abizen berrien grafia onartzeaz landa, hainbat udalerritako azterketa toponimikoak gainbegiratu eta EUDELetik, erakundeetatik edo elkarteetatik egindako kontsulta ugari erantzun ditu.

Batzordeak, halaber, herri-erakundeetatik (EAeko Gobernutik eta Aldundietatik, Nafarroako Gobernutik, Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikotik, udaletatik) etorten diren kontsultei erantzuten die. Horien artean, Hiriberri Arakil, Iruñea / Pamplona, Paiueta, Untza-Apregindana, Uxue eta Zumentu herrien izenak aurki daitezke.

Halaber, Agoitz, Imarkoain, Berantevilla, Berriobeiti eta Uhar-te Eguesibar herrietako kale izendegiak onartu dira eta Iruñea / Pamplonakoaren zati bat. Ostera, kale berrien izendapenari buruz,

Arrasate, Donostia / San Sebastián, Gamiz, Getxo, Mendigorria, Navaridas, Laguardia, eta Vitoria-Gasteizko udalei aholkua eman zaie.

#### IV. 2. Exonomastika batzordea

Batzorde honen lana da Euskal Herritik kanpoko tokiei, pertsoneri eta elkartei dagozkien edozein motatako izen propioak aztertzea. Halaber, beste maila bateko izen komunak eta beraien ezaugarri morfologikoak ikertzea; adibidez: dinastiak, talde sozialak, etniak eta atzerriko herrialdeak. Bere lana horien ikerketa eta arautzea da, bai eta arloari buruz aholkatzea eta irizpenak ematea.

Batzorde honen lana da Euskal Herritik kanpoko exonimoen eta tokien izenen azterketa.

2017an, batzorde honen proposamenez, Euskaltzaindiak honako Arau hauek onartu eta argitaratu ditu:

- Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Jatorri germanikoa duten izenak (180. araua) (2016an onartua).
- Erdi Aroko pertsonen izenak (181. araua) (2016an onartua).
- Munduko dinastien izenak (182. araua).
- Adierazpen izendatzaileen deklinabidea (183. araua).
- Erdal hitzen deklinabidea (184. araua)
- Errenazimenduko pertsona-izenak (185. araua)
- Errege eta Erreginen izenak. Grafia moldatzeko irizpideak (186. araua, 2017an onartua baina urte horretan ez argitaratua).
- Ordena militarren eta -ospitalarioen eta giza kolektibitate historikoen izenak (2017an onartua baina urte horretan ez argitaratua).

#### IV.3. Euskal Corpus Onomastikoa

2017an zehar, hainbat iturri idatzietatik eratorritako informazio onomastikoa jaso da: 1800-1830. urte arteko euskal literaturaren corpusetik datorrena; *Libro de policía* (1855) izenez ezagutzen den eskuz idatzitako Bizkaiko errolda; Michel Morvanek idatzitako “Les noms de montagnes du Pays Basque” artikuluan ageri diren datuak (*Lapurdum*, 1999); Jose María Jimeno Jurioren *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza* (1990) lanekoak; Jean-August Brutails-en *Documents des archives de la Chambre des Comptes de Navarre (1196-1384)*-ren 1890eko ediziotik bildutako iturri dokumentalak; “D. D (Merindad de Estella)” dokumentutik bildutako datuak; Juan Carrasco Pérez-en *La población de Navarra en el siglo XIV* (1973) lanetik ateratakoak; Paul Raymondek 1873an editaturiko *Cartulaire de Saint-Jean de Sorde* lanean dauden onomastika-terminoak; 1984an José Antonio Munilla Loinazek transkribatu zuen *Becerro del monasterio de Santa María de la Oliva (Navarra)* liburuan daudenak; 1829an Luis López Ballesterosek egin zuen



XVI. mendeko Gaztelako Koroako probintzia eta partiduen udal erroldak jasotzen dituzten euskal toponimoak; Santiago López Castillok 1984an argitaraturiko *Diplomario de Salinas de Añana (1194-1465)*-n ageri den informazio onomastikoa; halaber, Frantziako Institut National de la Statistique et des études économiques erakundeak urtero argitaratzen duen *Recensement de la population, populations légales en vigueur à compter du 1er janvier 2017, Arrondissements-cantons-communes*-ean erregistratuak dauden toponimo ofizialak.

Guztira, 2017an zehar 126.991 forma dokumental berri gehitu dira Corpusean. Halaber, 1.231 pertsona izen, 1.100 deitura eta erregistraturiko 15.620 toponimo berri.

#### IV.4. Gasteizko toponimia

Ikerketa egitasmo honen esparru geografikoa Gasteiz hiriak eta bere inguruko 64 herrik osatzen dute. Azterketa historiko-linguistikoa honen azken helburua, udal-artxiboetan ageri den leku-izen bakoitza identifikatzea, sailkatzea eta arautzea da. Leku-izen horiek sei mendetako denbora tarte hartzen dute, XIV. mendetik XX. mendera. Azterketa eta emaitzen argitaratzea egoki egiteko asmoz, herriak XI. mendeko Araba osatzen zuten merindadeak aintzat hartuz sailkatu dira. Informazio hau Donemiliaga Kukulako monasterioan dagoen dokumentu batean aurkitzen da: “La Reja de Álava” izeneko dokumentuan, hain zuzen ere. Nahiz eta gaur egungo muga administratiboak ez datozen bat XI. mendeko merindadeek finkatzen zutenarekin, lanaren plangintzarako eta aurkezpenarako baliagarri suertatzen dira. Orain arte, “Onomasticon Vasconiae” bilduman, Gasteizko toponimiaren bost zenbaki argitaratu dira.

2017an, Arratzuko merindadearen bigarren partearen ikerketa bukatu da (30.000 erregistro toponimiko dauzkan corpus baten gainean) eta *Toponimia de Vitoria VI, Arratzua II* zenbakia argitaratzeko prest utzi da. “Onomastica Vasconiae” bildumaren 32. zenbakia izango da eta 1.267 sarrera toponimiko arautu eta 12.200 dokumentu-testigantza bilduko ditu. Halaber, 401 sarrera nagusi, eta toponimoak kokatzen diren lur-eremuen zazpi mapa ere argitaratu dira.

Urte honetako azken hilabeteetan, Arratzuko merindadeari dago-kion hirugarren eta azken zatia ikerketarako beharrezko materialen prestaketa lanak hasi dira.

Egitasmo hau Euskaltzaindiak eta Gasteizko Udalak duten elkar-kidetzaren bidez gauzatzen da eta 1996tik aurrera ari da lanean.

#### V. LITERATURA

2017an, Euskal Literaturaren Antologiaren bigarren liburukia osatzeko lanekin jarraitu da: “2. Errenazimendutik Ilustraziora. XVII-XVIII mendeak”. Horretarako testuak hautatu eta moldatu, eta sarrerak eta azalpen-oharrak egin dira.

Poesiaren alorrean, egileen eta testuen hautapen prozesuarekin jarraitu da: Salvat Monho, olerki satiriko eta laudagarriak. Ahozko olerkigintzaren atalean, amodiozko kanten eta baladen hautaketa egin da eta horiekin lanean hasi da. Prosaren alorrean, testu posibleen hasierako hautapena egin da, eta Axularri eta J.B. Agirreri dagozkien kapituluak ia bukatutzat eman dira.

#### VI. AHOSKERA

##### VI.1. Ahoskera batzordea

Ahoskera batzordea bere ahotsa irakaskuntzari helarazteko bideei buruz gogoeta egiten aritu da urteko lehen lau hilabeteetan. Alde batetik, kontaktuak bilatu dira dialektologikoki eta geografikoki 2015eko jardunaldiko parte hartzaileak baino urrunduagoak dauden pertsonekin. Bestetik, lan egin da diskurtsoa entzuleria desberdinetara moldatzeko. Halaber, euskarazko antzerkigintza taldeekin kontaktu berriak izan dira. Elkarlana sustatu nahi da ahoskeraren estandarizazio egokia ahalbidetuko lukeen teknika didaktikoetan aurreratzeko.

Batzordeak Akademiaren barne jardunaldietan (martxoan) aurrez esandakoaren oinarri nagusiak finkatzen dituen egitasmoa aurkeztu du.

Maiatzean, partaidetza eta entzule aldetik arrakasta handiarekin, Ipar Euskal Herriko Kanboko eskolako irakasleekin mintegi bat egin da. Esperientzia hark eman zituen ondorioetatik zer hobetu daitekeen landu du batzordeak hurrengo hilabeteetan. Horrez gain, 2018rako mintegi berriak antolatu dira eta Euskaltzaindiko Zuzendaritzarekin elkarlanean jarraitu da, martxoan aurkeztu egitasmoa nola indarrean jar daitekeen zehazteko.

#### JAGON SAILA

#### VII. CORPUS BATZORDEA

Batzorde honen zeregin nagusia Euskararen Corpusa eta hizkuntzaren kalitatea zaintzea da. Batzordearen egituraren, hizkuntzaren alorreko galde-erantzunen datu-basea garatzen duen Jagonet zerbitzua dago.

#### VIII. EUSKALKIEN LANTALDEA

M, N, Ñ, O eta P hizkien 1.055 sarrera prestatu eta aztertu dira. Horietatik guztietatik 267 *Euskaltzaindiaren Hiztegirako* proposatuak izan dira eta bakarra Euskalkien Hiztegirako.



## IX. SUSTAPEN BATZORDEA

Euskararen erabilera eta proiektio soziala sustatzeaz arduratzen da. 2016an, Baionan, XXI. Jagon jardunaldian eman ziren hitzaldiak bildu eta sailkatu dira aurten, 2018ko urte hasieran argitaratzeko asmoarekin. Jardunaldi hark euskarak Ipar Euskal Herrian bizi duen egoera eta izan dezakeen etorkizuna irudikatu zuen. Hori guztia testuinguru berezi batean garatu zen, hots, Ipar Euskal Herriko udalerrri guztiak biltzen dituen mankomunitatea eratzeaz dagoenean.

Horrezaz gain, Akademiak bere XXII. Jagon jardunaldia burutu du Gasteizen, *Araban, euskaraz bidea egiten* titulupean. Helburu nagusia izan da Araban euskara sustatzeko indarrean dauden eta abian jarriko diren egitasmoak ezagutzea. Lehenbizi sarrerekitaldia egin da eta, jarraian, lurralde honetako azken urteetako datu soziolinguistikoak aztertu dira, eta euskararen ezagutzak eta erabilerak izan duen bilakaera irudikatu da. Ondoren, hainbat erakundetako euskara teknikariak mahai-inguru batean bildu dira eta garatzen dituzten hizkuntza-politiken berri eman dute. Gauza bera egin dute Arabako euskara elkarte jakin batzuetako kideek. Bukatzeko, hedabideek euskararen normalizazioan duten eragina aztertu dute komunikazio-aditu eta kazetari batzuek.

## X. JOANES ETXEBERRI EGITASMOA (EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA)

Euskararen Historia Soziala (EHS) Euskaltzaindiaren egitasmo bat da. Bere ikerketa-esparrua giza dimentsioa da, aldi historiko eta herrialdearen gune jakin batzuetan islatuta, euskararekin harremanetan jarrita aztertzea, eta ondoren gurearekin ukipenean izan diren beste zenbait hizkuntzekin. Beraz, diziplinarteko jarduera da, Hizkuntzaren Soziologiaren, Hizkuntzalaritzaren, eta, jakina, Historiaren oinarritzko elementuak konbinatzen dituena.

2017an, *Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa* liburuaren laburpena prestatzen jardun dira egitasmoko kideak. Izenburuak adierazten duen moduan, argitalpen originalak (745 orrialde) euskararen Historia Soziala ikertzeko eredu metodologiko bat planteatu, deskribatu eta hein batean aplikatu nahi du. Saiakera sistematiko bat da, berritzailea, dakigularik, antzinatik hizkuntza baten “kanpo historia”ri dagokion gertaera ororen tipifikazioarekin zerikusia izan dezaketen oinarritzko parametroen (30 gure kasuan) azterketa egin ahal izateko. Alegia, hizkuntzen garapenarekin zerikusia izan zuten aldagai sozialen, kulturalen, politikoaren eta historikoen deskripzio kronologikoa. Deskribapen horri hizkuntzaren soziologiaren oinarritzko kontzeptuak gehitzen dizkiogu: batik bat, hizkuntzaren soziologia dinamikoaren azterketa propioa eta berau osatzen duten esparru proiektibotik, kontrastibotik eta preskriptibotik (*corpus, status, acquisition e identity planning* jargoi profe-

sionalean) datozen perspektibak. Liburu originalak hizkuntza-portaeraren antolaketa sozialaren zehaztasun teoriko-metodologikoa deskribatzen ditu. Bai perspektiba orokorrean, bai leku, denbora eta espazio mugatuetan. 2017an, lan honen laburpena bukatu eta ingelesera itzultzeko lehen bertsio bat egokitu da. Hasierako dokumentua, publiko orokorrako bati zuzentzeko asmoarekin, laburtu eta moldatu nahi izan da. Begiz jo dira hizkuntzaren historia sozialeko aldagai metodologikoetan adituak, eta, ondorioz, euskararen aferatan hain interesatuak ez daudenak. Hargatik, arreta berezia jarri da nazioarteko literatura soziohistorikotik jaso diren adibideetan.

Hein berean, 2016an, Euskaltzaindiaren Luis Villasante Ikergunean, Donostian mintzo izan diren (gutxienez bost) hizkuntzen historia sozialen eboluzioari buruzko mintegia egin zen. Bertan emandako datuak bildu dira etorkizunean argitaratzeko asmoarekin. Ahal izan den neurrian (dokumentazioa urria baita), udalaren eta eskualderen historiaren garai jakin batzuetan, hizkuntza bakoitzaren hedadura demolinguistikoa, proiektio espaziala eta nagusitasun soziofuntzionalaren osaketa zehaztu nahi izan da.

Perspektiba luzeago batean, Jesús Lorenzok egindako lan bat aurkeztu nahi da, euskal aipuak arabiar iturrietan (batez ere 714-929. urte bitartekoetan) deskribatzen dituen. Horrekin batera, herrialdeko onomastikaren osaera lexiko-genesikoaren azterketarekin jarraitu da, batez ere ikuspegi intra-euskaldun batetik. Uste da bi lan horiek Goi Erdi Aroko hizkuntza portaeraren antolaketa soziala argitzeko argigarriak izan daitezkeela.

## EGITASMO INSTITUZIONALAK

### 1. Erlea aldizkaria

2017an, aldizkariaren 11. zenbakia kaleratu da.







## EGITURAZKO BATZORDEAK

### 1. Argitalpen batzordea

Batzorde honek Euskaltzaindiaren argitalpen guztiak programatu eta antolatzen ditu. Horien artean *Euskera* aldizkaria, Akademiaren organo ofiziala, 1919tik kaleratzen dena, nahiz eta 1938-1952 eta 1954-1955 urteen artean etenak izan. Agerkari horren bitartez ezagutzera eman ditu Euskaltzaindiak historikoki bere lanak.

2017an agerkariaren bi zenbaki aurkeztu dira, horietako bat, bitzita akademikoaren berri ematera bideratua, eta, bestea, arloko ikerketa-lanak biltzen dituen.

Batzordearen zuzendaritzapean, Argitalpen zerbitzuak argitalpenen egunerokoak kudeatzen ditu. 2017an argitaratu diren lanen berri Argitalpen zerbitzuaren atalean ematen da.

### 2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea

2017an, aurreko liburuzain akademikoa, Joan Mari Torrealdai jauna, ordezkaturia izan da. Liburuzain berria, Andres Urrutia, Biblioteka-Artxiboko zuzendariarekin bildu da hainbat aldiz, eta asmo nagusia da etorkizunean zerbitzua berriztatzeke proiektu bat egitea.

Aurten, ahalegin handiena egin da Eugenio Arozenak euskal teatroari buruz bildu zuen ondare artxibo-bibliografikoaren sailkapenean eta katalogazioan. Lanak erabat burutu ez diren arren, oso aurreratuak daude. Ondare hau Oiartzungo Udalaren esku zegoen eta Udalak Euskaltzaindiari dohaintzan ematea erabaki du.

Halaber, Akademiak bereganatu dituen funts berriak kudeatu dira: alde batetik, Koldo Larrañaga historialariaren liburutegi-artxiboa. Funts hauentzako katalogazio plan bat egin da 2018rako. Bestetik, euskaltzain eta idazle izan zen Jose Basterretxea, *Oskillasoren* (1911-1996) funts artxibistiko-bibliografikoak. Egoera nahiko txarrean zeudelarik eskuratu dira eta, hargatik, haien kudeaketak oraindik argitu ez diren zalantzak ageri ditu.

### 3. IKT batzordea

Batzorde honen bi zeregin nagusiak dira Euskaltzaindiaren edukiak erabilaraztea eta gizarteratzea, eta testu-corpusak elikatzea, egituratzea, bateragarri bihurtzea eta gizarteratzea.

2017an, Euskaltzaindiaren argitalpenen bertsio digitalak erakundearen webgunean txertatzeaz gain, webgunea bera eguneratzeko lehenengo pausuak eman dira. Asmoa informazioa hobeto egituratzea eta irismen errazeko bilatzaile bat izatea da. Horretaz landa, *Orotariko Euskal Hiztegia* corpus bilakatzeko egitasmo bat abian jarri da.

### 4. Euskara Batuaren Eskuliburua batzorde suntsikorra

Batzordearen egiteko nagusia *Euskara Batuaren Eskuliburua* prestatzea da. Eskuliburu horren helburua Euskaltzaindiaren araugintza ezagutaraztea da eta izaera arauemailea izanen du. Hizkuntza-alor guztietako langaiak --ahoskera, lexikoa, kalkoak, morfologia, onomastika, ortotipografia eta sintaxikoek, alegia-- izanen dute tokia bertan.

Eskuliburuaren ikuspegia erabat praktikoa izanen da eta euskal hitzun jantzia (EGAtik gorakoa, baina espezialista izan gabe) izanen da hartzailea. Orobat, eskuliburua bi euskarritan argitaratuko da: batetik, paperean, aldi baterakoa izanen dena, eta, bestetik, digitala, egunean-egunean osatuz joanen dena.

2017an, lexikoari, kalkoei, morfologiari eta sintaxiari buruzko langaiak aztertu eta ontzat eman dira. Halaber, eskuliburuaren behin-behineko egitura, dela paperezkoa, dela euskarri digitalekoa prestatzen hasi da batzordea.

## RESURRECCIÓN MARIA AZKUE LITERATURA SARIAK

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa fundazioak Literatura sari hauek antolatzen dituzte, haur eta gazteei zuzenduak doazenak. Bi kategoriatan banatuak daude: A kategoria, 11 eta 14 urte bitarteko ikasleentzako; eta B kategoria, 15 eta 18 urte bitartekoentzako. Kategoria bakoitzean bi literatur genero saritzen dira: narrazioa eta olerkia.

2017ko edizioan 151 lan aurkeztu dira.

2017ko irabazleak honako hauek izan dira:

Saria	Lan Saritua	Egilea	Ikastegia
<b>A: Narrazioa</b> <b>11 - 14 urte</b>	1. saria: <i>Maitasun ahaztezina</i> 2. saria: <i>Txiro naiz eta txikia naiz</i> 3. saria: <i>Gora gure tren</i>	Maialen Leiza Uxue Etxebeste Uritz Aranbarri	Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) Urola Ikastola (Azpeitia)
<b>A: Olerkia</b> <b>11 - 14 urte</b>	1. saria: <i>Lehen eta orain</i> 2. saria: <i>Zu</i> 3. saria: <i>Inor ez nau ezagutzen</i>	Lur López Goizalde Eizagirre Ainhize Bengoa	Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) Seber Altube Ikastola (Gernika-Lumo) Seber Altube Ikastola (Gernika-Lumo)
<b>B: Narrazioa</b> <b>15 - 18 urte</b>	1. saria: <i>Kale Berria</i> 2. saria: <i>Ez</i> 3. saria: <i>Kaleidoskopioak</i>	Anne Arrizabalaga Maddi Aiestaran Maialen Garaigordobil	Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) Beasaingo BHI Fray Juan de Zumarraga Institutua (Durango)
<b>B: Olerkia:</b> <b>15 - 18 urte</b>	1. saria: <i>Non zaude Babilonia</i> 2. saria: <i>Ausartuko naiz</i> 3. saria: <i>Ez dakit</i>	Peru Amorrortu Maddi Aiestaran Ainara Gómez	Ekialdea BHI (Vitoria-Gasteiz) Beasaingo BHI Armentia Ikastola (Vitoria-Gasteiz)

Urtero bezala, aurten ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, betiere Euskaltzaindiak izendatutakoak.

Hauek izan dira aurtengo epaimahaikoak:

A mailan: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria eta Manu Lopez Gaseni.

B mailan: Yolanda Arrieta, Amaia Jauregizar eta Patxi Zubizarreta.



R.M. Azkue Sariketako 2017. urteko edizioan saritutako gazteak eta epaimahaiko kideak, Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindiko ordezkariekin.

### 3. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK





**E**uskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu horiek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira zerbitzuak: Idazkaritza, Ekonomia, Azkue Biblioteka, Onomastika, Argitalpenak, Komunikazioa eta Irudia, eta Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua, berriz, zeinaren barruan baitago Jagonet, Luis Villasante Euskararen Ikergunean dago kokatuta.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiri-burutan, hots, Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek egoitzaetik eta ordezkarietatik bideratzen dira.

Osoko bilkurak hilean behin egiten dira Bilbon, Donostian edota, erakundeari hala eskatzen zaionean, Euskal Herriko beste herri batzuetan. Zuzendaritzako bilerak hilean bitan egiten dira, bideo-hitzaldiz. Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan horien guztien berri ematen dio Zuzendaritzari eta baita, ezarritako epeetan, dagokien Herri Administrazioei ere, behar diren txostenak prestatuz. Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu, kudeatzailearekin batera.

## I. AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA ZERBITZUA

Hiru atal nagusitan bereizten da:

### I. 1. Artxiboa

Erakundearen beraren artxibo propioari dagokionez, 1970 eta 2004 arteko funts artxibistikoaren katalogazio lanak eten egin behar izan dira pertsonal faltagatik. Halaber, erakundearen barruan abian jarri zen funtsen sailkapenerako eta transferentziarako sistemak normaltasunez funtzionatzen du, baina erakunde guztira orokortu ez izanaren ondorioz, atzerapena apur bat metatu da. Zentutako euskaltzain eta antzekoen funtsak eskuarki hitzarmen eta dohaintzen bidez eskuratzen dira, eta, haiei dagokienez, aurtengo lan nagusia Eugenio Arotzenak bildu duen euskal antzerkiari buruzko ondare artxibo-bibliografikoaren sailkapena eta katalogazioa izan da. Lan hau bi hilabeteren buruan amaitzea espero da. Horrez gain, aurrez aipatu diren funts-bilduma bi Euskaltzaindiko egoitzara eramanak

izan dira: Koldo Larrañagarena eta Oskillasorena. Lehenbizikoari dagokionez, osotasunean sailkatua izan da eta hurrengo urtean gauzatuko den kudeaketa plana egin da. Bigarrenarekin, ostera, oinarrizko sailkapena egin ostean, bere egoera zein den aztertu zain aurkitzen da.

Azkenik, Piarres Lafitte euskaltzain zenaren funtsen digitalizazio prozesua eten da pertsonal faltagatik.

### I. 2. Biblioteka

Erosketa eta harpidetzarako aurrekontu faltan, katalogazio lanak gutxieneko mailan mantendu dira (475 item).

### I. 3. Dokumentazioa eta Harrera

Hildako euskaltzainen fitxa bio-bibliografikoak egiten jarraitzeko baliabiderik izan ez bada ere, sistemaren ezaugarri nagusiak mantentzera bideratu dira lanak: dagokion protokoloaren arabera Euskaltzaindiko kideen gaineko dokumentazioaren bilketa sistematikoa.

Horrekin batera, Bibliotekara hurbildu diren 246 lagunei arretaz zerbitzua eskaini zaie eta 6.911 kontsulta erantzun dira.

## II. ONOMASTIKA ZERBITZUA

Onomastika zerbitzuaren bidez udal-mapak egiten lagundu zaizkie Amezketa, Arluzea, Ataun, Azpeitia, Bernedo, Durango, Elorrio, Kinta, Laudio, Lezo, Markina-Xemein, Oiartzun, Orio, Urizaharra, Urkabustaiz eta Zumaiako udalei.

Onomastika zerbitzuak pertsona-izenei buruzko 642 kontsulta eta deituren gaineko 240 artatu ditu. Eskari gehienak Erregistro zibiletatik eta Bake epaitegietatik etorri dira, batik bat Euskal Autonomia Erkidegotik eta Nafarroatik, nahiz eta Estatutik ere batzuk izan diren.



### III. ARGITALPEN ZERBITZUA

2017an argitaratu dira:

- *Euskera*, 2016, 1. Egileak: Batzuk.
- *Euskera*, 2016, 2. Egileak: Batzuk.
- Euskaltzaindiaren *Oroitidazkia* 2016 (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez).
- *Esteve Materraren do(c)trina christiana (1617 & 1623). Edizioa eta azterketa*. Egileak: Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Ekaitz Santazilia, Borja Ariztimuño, Oxel Uribe-Etxebarria, Urtzi Regero.
- *Erlea 11*: Egileak: Batzuk.
- *Toponimia de Vitoria/Gasteiz VI: Arratzua II*. Egilea: Elena Martínez de Madina.
- *Toloño, nexo de union de La Montaña y la Rioja Alavesa*. Egilea: José Ángel Chasco.
- *Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982. Euskal antzerki identitarioaren paradigma*. Egilea: Isabelle Echeverria.
- *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa VIII*. Egileak: Batzuk.
- *Narrazioak eta olerkiak, 2016*. Egileak: Batzuk.

Ia argitalpen guztien salmenta Akademiak egiten du. Ale gehienak banatzaileen bidez saltzen dira, eta gutxiago, azoka, liburu-denda eta zuzeneko eskarien bidez. Euskaltzaindiaren argitalpen gehienak bere webgunean kontsulta daitezke: [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus). 2017ko argitalpen salduenak izan dira: *Euskaltzaindiaren Hiztegia: Adierak eta adibideak* eta *Erlea 11*.

### IV. INFORMATIKA ZERBITZUA

Euskaltzaindiaren Informatika zerbitzuaren helburu nagusia erakundearen informatika eta telekomunikazio zerbitzuak mantentzea da. Honez gain, zerbitzu horiek hobetzera bideratutako berrikuntza proiektuak koordinatzen dira bertatik.

Hauexek izan dira 2017an egindako lanak:

- *Orotariko Euskal Hiztegia* corpus bihurtzeko egitasmoaren baitan hiztegiak erredaktatzeko softwarea garatzeko berrikuntza teknologiko proiektua abian jarri da.
- Corpusak ostatatzen dituen zerbitzaria eta webgunea ostatatzen duena hornitzailez aldatzearen ondoriozko migrazioa.
- Babeskopia zerbitzuak hobetu eta biltegiatze-zerbitzaria handitzea.
- Mezularitza eta webgunearen zerbitzariak bertsio-berritzea.

- Webguneko edukiak eta argitalpenak eguneratzeko lanak: Euskararen Onomastika Datutegian datu-kargak; *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* webguneko datu-basea eguneratzea; *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IX*. liburukiaren argitalpenerako esportazioa; *Euskera* agerkariaren hemerrotekan artikulua berriak.

### V. KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA ZERBITZUA

Zerbitzu honen helburu nagusia da gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta, era berean, Akademiak beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea.

Horretarako, zeregin hauetan saiatzen da Komunikazioa eta Irudia zerbitzua: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzen; horrez gain, euskaltzainen curriculumak egin eta eguneratzen dira, webguneko bestelako atal batzuk gaurkotzearekin batera; *Plazaberri* bloga ere kudeatzen du zerbitzu honek, eta, gainera, sare sozialetan Akademiak dituen plataformak zaindu eta elikatzen ditu (Facebook, Twitter, Youtube eta Instagram). Azkenik, Euskaltzaindiaren ekitaldietako argazkien eta bideoen ardura ere zerbitzu honi dagokio.

### VI. HIZKUNTZA KALITATEAREN BEHATOKIA ZERBITZUA (HIZBEA)

Euskaltzaindiak 2013ko Barne Jardunaldietan, Akademiako beste zerbitzuekin elkarlanean jardungo zuen zerbitzu zentral eta orokor bat sortzea erabaki zuen: Hizkuntza Kalitatearen Behatokia. Honako hauek dira bere helburuak:

- a) Euskaltzaindia bere argitalpenen euskara mailari dagokionez eredugarria izan behar da.
- b) Akademiaren ekoizpenak zabalkunde didaktikoa izan behar du. Horretarako baliabide guztiak erabiliko eta tresna informatikoak lehenetsiko ditu.
- c) Euskalgintzak zer premia duen identifikatu eta bere eskariak ahalik eta azkarren erantzun.
- d) Lan eta beharizan hurbilenak lehenetsi, urrutiragoko lanak alboratu gabe.

Hizbeak, Argitalpen batzordeak eta Irudia eta Komunikazio zerbitzuak eskaturik, hainbat lan zuzendu ditu 2017an.

Dokumentu originalak eta zuzenduak datu-base batean txertatuak izan dira.

Zenbait kasutan, txosten laburrak idatzi dira, testu batzuek hizkuntza kalitate irizpide minimoak betetzen ez zituztela salatzen.

# 4. HERRI-ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK





**E**uskaltzaindiak hainbat herri-erakunde, instituzioa hedabide eta elkarteekin lankidetzahitzarmenak dauzka. Hona hemen horien zerrenda, 2017ko abenduaren 31ko datarekin.

## HERRI-ERAKUNDEAK

- Eusko Legebiltzarra
- Nafarroako Parlamentua
- Espainiako Gobernua (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa)
- Eusko Jaurlaritza
- Nafarroako Gobernua (Euskarabidea)
- Frantziako Administrazio Publikoak (Euskararen Erakunde Publikoa - Office Public de la Langue Basque)
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Euskadiko Udalen Elkarteak - EUDEL
- Euskarabidea
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Gasteizko Udala
- Iruñeko Udala



Herri erakundeetako eta Euskaltzaindiko ordezkariak *Hiztegi Juridiko Parlamentarioaren* aurkezpenean.



#### ERAKUNDE FINANTZARIOAK

- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
- Caja Vital Kutxa Fundazioa
- Gipuzkoako Kutxa
- Laboral Kutxa

#### HEDABIDEAK

- *Argia* aldizkaria
- *Berria* egunkaria
- Bizkaia Irratia
- *Deia* egunkaria
- *Diario Noticias de Gipuzkoa* egunkaria
- EiTb
- *El Correo* egunkaria
- *El Diario Vasco* egunkaria
- Euskalerrria Irratia
- Euskarazko Komunikazio Taldea
- *Herria* aldizkaria
- Iparragirre argitaletxea
- *Jakin* aldizkaria
- *Karmel* aldizkaria

#### ELKARTEAK, INSTITUZIOAK ETA FUNDAZIOAK

- AEK
- Baionako Mediateka
- Bergarako Irigoyen patronatua
- Bilbo Zaharra Euskaltegia
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiak
- Deustuko Unibertsitatea
- EIZIE (Euskal Itzultzaileen, Zuzentzaileen eta Interpreteen Elkarte)
- Elhuyar Fundazioa
- Elkar Fundazioa
- Errioxako Unibertsitatea
- Etxepare Institutua
- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
- Euskal Herriko Unibertsitatea

- Euskal Ikasketen Fundazio Popularra
- Euskal Kultur Erakundea
- Eusko Ikaskuntza
- Frisiar akademia
- Gabriel Aresti Kultura Elkarte
- HABE
- Hebreera Hizkuntzaren Akademia
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE – IVAP)
- IGN (Institut Géographique National)
- Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua
- Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoaren Euskal Herriko Lurralde-Dekanotza
- Jakin Fundazioa
- Labayru Institutua
- Laneki (Lanbide Heziketan Euskara sustatzeko elkarte)
- Langune
- Mendebalde Kultur Alkartera
- Mintzola Fundazioa
- Mondragon Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Olaso Dorrea Fundazioa
- ONCE (Espainiako Itxuen Erakundea)
- Ramon Rubial Fundazioa
- Sabino Arana Fundazioa
- Soziolinguistika Klusterra
- Topagunea
- Udako Euskal Unibertsitatea
- Unesco Etxea
- UZEI Terminologia eta Lexikografia zentroa
- Xiberoko Elkargoa





## EUSKALTZAINDIAK 2017AN BESTE ERAKUNDEEKIN ETA ELKARTEEKIN SINATU DITUEN HITZARMENAK

Euskaltzaindiak 2017an hitzarmenak sinatu ditu hainbat erakunde eta elkarterekin euskararen arloko ikerketa eta sustapena bultzatzeko. Horien bitartez zenbait egitasmo akademiko garatu ahal izan dira.

### BILBOKO UDALA

Hitzarmena 2017ko ekainaren 5ean sinatu zen.

Akordioaren ondorioz, kultura jarduerak, euskarazko ikastaroak, eta euskararen aldeko hitzaldi eta erakusketak antolatzeko konpromisoa hartu zuen Akademiak. Bere aldetik, Udalak, Euskara eta Hezkuntza Sailaren bitartez, 35.500 euroko diru-laguntza eman dio Euskaltzaindiari.

Hauek dira sinatutako hitzarmenak biltzen dituen akordio nagusiak:

- Bilbok euskararekin izan duen lotura estua eta denboraren joanean bilbotarrek euskarari erakutsi dioten atxikimendua gizarteratzeko asmoz, Bilborekin lotura izan duten pertsona esanguratsuen lanak edota bibliografiak argitaratzeko ahalegina egingo du Euskaltzaindiak. 2017an, Xabier Kintana euskaltzain osoaren biografia landu da.
- Bilbok euskararen indarberritzean duen garrantzia kontuan hartuz, udazkenean, euskararekin eta euskal kulturaren zabalkundearekin lotura duen "Astelehen Buruzuria" eztabaida- eta kontzertuzikloa antolatu du. Bertan parte hartu dute euskal musikagintzaren erreferente diren hainbat sortzailek.
- Nahiz eta hitzarmenean propio jaso ez, Euskaltzaindia eta Bilboko Udala elkarlanean aritu dira "Euskal Harriak: 50 urte" eta "Eguna egunkariaren 80. urteurrena" jardunaldiak antolatzean.
- Euskaltzaindiak hizkuntzaren arloko aholkularitza eskaini die Udaleko sailei, bilbotarrei informazio egokia emate aldera.



Juan Mari Aburto eta Andres Urrutia hitzarmena sinatzen.



## EUSKARABIDEA

Hitzarmena 2017ko ekainaren 19an sinatu zen.

Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari 149.000 euro eman dizkio jarraian zehazten diren lanak egin ditzan:

- Euskal Corpus Onomastikoak (ECO) egin beharreko onomastika eta toponimia lanak egiteko.
- Nafarroako Parlamentuan, "Euskara ibiltaria" euskalkiei buruzko erakusketa antolatzeko.
- Joakim Lizarraga nafar idazle klasikoaren lexikoa aztertzeke.

## IRUÑEKO UDALA

Hitzarmena 2017ko abenduaren 15ean sinatu zen.

Hitzarmen horren arabera, Euskaltzaindiak hizkuntzaren inguruko zerbitzuak eman ditu, argibideak eta aholkuak zein txostenak eta egiaztagiriak, herritarrek halakoak eskatu ahala, hala bere bulego nagusietatik nola Iruñean daukan Nafarroako ordezkarietatik. Horretarako, Iruñeko Udalak 12.000 € eman dizkio Euskaltzaindiari, Euskaltzaindiak Iruñean duen egoitza edo ordezkarietza mantentzeko eta bertatik herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak emateko.

## GASTEIZKO UDALA

Hitzarmena 2017ko apirilaren 5ean sinatu zen.

Hitzarmen horrek, besteak beste, jarraian deskribatzen diren lanak egitea ahalbidetu du:

- Hizkuntza aholkularitza. Herritarrei zerbitzu egokia eskaini ahal izateko, udal zerbitzuek eskatu dioten hizkuntza aholkularitza eman du Euskaltzaindiak. Gasteizko euskarari buruzko azterlanak. Lan horien arteko lehena udalerriko toponimiaren azterketa da. Ondorioz, 2017an, *Toponimia de Vitoria VI / Gasteizko Toponimia VI: Arratzua II* argitaratu da.
- Ohiko jarduera. Euskaltzaindiak, dela bere zerbitzu orokorretatik, dela Arabako ordezkarietatik bertatik, herritarrek eskatzen dioten informazioa eta laguntza eskaintzen jarraitu du.
- Orobat, kultura hedapenerako ekintzak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatu ditu Euskaltzaindiak Araban. Adibidez, azaroaren 17an, "Arabara, euskaraz bidea egiten" Euskaltzaindiaren XXII. Jagon jardunaldia antolatu du Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Gasteizko Udalak 63.000 euro eman dizkio Euskaltzaindiari arestian zehaztu diren ekimenak garatzeko.



Ana Ollo, Nafarroako Gobernuaren kontseilaria, eta Andres Urrutia, euskaltzainburua.



Gorka Urtaran, Gasteizko alkatea, eta Andres Urrutia, euskaltzainburua.



## BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena 2017ko azaroaren 20an sinatu zen.

Bere helburuak bete nahian, Euskaltzaindiak "Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa" eta "R. M. Azkue Sariak 2017" deritzen proiektuak gauzatu ditu. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak aipaturiko proiektuak egoki garatzeko 29.040 euro eman dizkio Euskaltzaindiari.

## KUTXA FUNDAZIOA

Kutxa Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena 2017ko maiatzaren 2an sinatu zen.

Hitzarmen honen ondorioz, Kutxa Fundazioak erabaki du 20.000 euroko laguntza ematea Euskaltzaindiari; hain zuzen ere *Orotariko Euskal Hiztegia* Corpus bihurtzeko lehen fasea burutzeko helburutzat duen proiektuari laguntzeko. Egitasmo horren azken helburua da *Orotariko Euskal Hiztegiaren* egitura gaur egun nazioartean erabiltzen diren estandarren arabera antolatzea eta egitura hori editatzeko inurune informatiko egokia garatzea.

## EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA

Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta Euskaltzaindiak 2017-2022 epealdirako hitzarmen-marko berria sinatu zuten 2017ko otsailaren 16an, Baionan.

Hitzarmen-marko berri honek bi erakundeek elkar aditurik egin beharreko lanen nondik norakoak zehazten ditu, eta lankidetzaren ardatzak eta erakunde bakoitzaren betebeharrak finkatzen.

Urtero, hitzarmen orokorrari lotutako urteko gehigarri bat izenpetzen da; 2017an, uztailaren 20an sinatu zen eta horren ondorioz hainbat ekinbide garatu dira:

Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak, 2016ko azaroaren 19an, antolatu zuten "Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa" XXI. Jagon jardunaldian irakurri ziren txostenekin osaturiko argitalpena ekoitzi da.

Toponimoen grafiari buruz EEPk izaten dituen zalantzei erantzuna eman die Euskaltzaindiak. Horrekin batera, erakundeak toponimia arloko formazio ikastaroa eman du Baionan eta, orobat, Institutu Geografiko Nazional (Institut Géographique National) toponimia normalizatzeko lana publiko egin da.

- Euskal Corpus Onomastikoaren (ECO) datu-basea osatu, aberastu eta eguneratu da.
- *Ikas* pedagogia zentroaren argitalpen proiektuen hizkuntza baieztapena egin du Akademiak.
- Egitasmo horiek gauzatzeko eta Baionako ordezkartzaren gastu arruntak estaltzeko, EEPk Euskaltzaindiari 160.000 euro eman dizkio.



Mathieu Bergé eta Andres Urrutia hitzarmena sinatzen.



## EUSKO LEGBILTZARRA

Eusko Legebiltzarraren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmen markoa 2017ko urriaren 27an izenpetu zen.

Urteotan, elkarlanerako esparru hau gauzatu da ekimen anizkuretan, hala nola, *Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioaren* garapenean (euskaraz lan egiten duten ganbera legegile guztiek erabilitako erreferentziazko hiztegia), *Linguae Vasconum Primitiae* euskaraz inprimatutako lehen liburua 17 hizkuntzetara ekarrita egindako hiru argitalpenetan eta Braille hizkuntzara egindako egokitzean; edo Euskararen Eguna ospatzeko egindako ekitaldietan.

Hitzarmen marko berriaren izenpetzearekin, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak elkarri euren ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera eman diote, eta, era berean, elkarlana bultzatu da argitalpen arloan, baterako argitalpenak sustatu direlarik. Horrez gain, bi erakundeak elkarlanean aritu dira euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko; lankidetzaz hori euskararen lurralde guztietako erakundeekin eta eragileekin partekatu nahi dute, betiere bakoitzak dituen prozedura-arauak errespetatuz. Bestetik, eta hitzarmen honen indarraldian, euskaraz sorturiko testu juridikoen erakusketa ibiltaria antolatzeke borondatea dute, bai eta X. Legegintzaldian *Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa* ontzeko eginiko urratsak eta sorturiko lanabesak baliatuz, izaera lexikografikoa duen hiztegi juridikoa ontzekoa ere.

## BAIONAKO EUSKAL MUSEOA

Hitzarmena 2017ko urriaren 2an sinatu zen.

Baionako Euskal Museoa eta Euskaltzaindia elkarlanean aritu dira, euskararen eta euskal kulturaren eremuan dituzten proiektuen gauzatzeko eta Euskaltzaindiak euskararen alorrean ezarri arauak zabaltzeko. Bereziki, Euskaltzaindiak erantzuna eman die Baionako Euskal Museoak egin dizkion kontsultei: euskararen kalitatea, euskal lexikoa, gramatika, onomastika, ortografia, erabilera egokia eta, ora har, euskararen araugintzako bestelako gaiei buruzkoak.

Erakunde bakoitzak euskararekin eta euskal kulturarekin dituzten funtsak (bereziki, etnografiarekin edota biblioteketan bilduriko funtsekin lotura dutenak) gizarteratzeko lankidetzaz bideak jorratuko dituzte, besteak beste, erakusketak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta jardunaldiak elkarrekin antolatuz. Elkarlan honen fruitu dira euskalkien aberastasunaren erakusgarri den “Euskara Ibiltaria”; eta, euskaraz landa, katalanaren, okzitanieraren eta aragoieraren berri ematen duen “Pirinioetako hizkuntzak” erakusketak, 2017an, Euskal Museoan antolatu izanak.

## UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA (UEU)

Hitzarmena 2017ko azaroaren 23an sinatu da.

Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia elikatzeko asmoz, UEUk argitaraturiko euskarazko testu-multzoak baliatzea adostu dute. Lexikoaren Behatokia egitasmoaren xedea da corpus monitore bat prestatzea, lematizatua, etiketatua eta linguistikoki apuntatua. Hainbat eragilek euskaraz ekoitziriko testuak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) irensten ditu, corpusaren oinarri bihurtuz. Horrela, UEUk sorturiko euskarazko testu-masa baliatuko litzateke, egun dagoen corpusa aberastuz.

Bestetik, Euskaltzaindiak euskaraz sortu, argitaratu eta zabaltzen duenaren oinarrizko informazioa Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-basean (Inguma) jartzea adostu dute. Euskaltzaindiaren eta UEUren arteko lankidetzaren xedeak dira, batetik, euskaraz ekoizten dena biltzea, sailkatzea eta ezagutaraztea, eta, bestetik, euskaraz diharduten ikertzaile, sortzaile, eta oro har, emaile guztiak harremanetan jartzea, euskararen normalizazioa, eta bereziki, unibertsitate mailako jakintza-arlo bakoitzaren euskararen normalizazioa sustatzeko. Halaber, sinatzaileok bat datoz Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-basea (Inguma) unibertsitarioren curriculum-garapenerako lanabes interesgarria dela aitortzerakoan.

# 5. WEBGUNEA ETA GIZARTERATZE LANA






www.euskaltzaindia.eus	2017
Bisitak guztira	856.029
Euskaltzaindiaren Hiztegia	1.732.878
EODA (Euskal Onomastikaren datutegia)	921.254
Web-orrialde bistaratzeak, guztira	4.024.707

Bestalde, Euskaltzaindiak zerbitzu zuzena eskaintzen die hiritar askori, eta egoitza eta ordezkarietatik kontsulta ugari erantzuten zaio: hizkuntza alorreko galderak, ziurtagiriak, irizpenak, bisita gidatuak eta abar. Egoitzan, Akademiak elkarte eta kultur-eragileen eskura dagoen ekitaldi areto bat dauka, betiere euskararekin zerikusia duten ekitaldiak antola ditzaten.

#### Euskaltzaindiaren bisitariak 2017:

	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Guztira
<b>ADMINISTRAZIOA</b>	<b>18</b>	<b>40</b>	<b>28</b>	<b>13</b>	<b>19</b>	<b>20</b>	<b>31</b>	<b>24</b>	<b>23</b>	<b>32</b>	<b>25</b>	<b>274</b>
Argitalpenak	5	6	3	3	4	1	4	4	6	7	0	43
Onomastika	9	22	16	7	7	12	17	15	10	13	14	142
Orokorra	4	12	9	3	8	7	10	5	7	12	11	89
<b>BIBLIOTEKA</b>	<b>24</b>	<b>26</b>	<b>28</b>	<b>10</b>	<b>24</b>	<b>20</b>	<b>15</b>	<b>18</b>	<b>28</b>	<b>34</b>	<b>19</b>	<b>246</b>
Irakurleen gela	13	6	13	4	8	9	5	10	12	20	13	113
Orokorra	11	20	15	6	16	11	10	8	15	14	6	133
<b>GUZTIRA</b>	<b>42</b>	<b>66</b>	<b>56</b>	<b>23</b>	<b>43</b>	<b>40</b>	<b>46</b>	<b>42</b>	<b>51</b>	<b>66</b>	<b>44</b>	<b>520</b>

## 6. BALANTZE EKONOMIKOA





## **EUSKALTZAINDIAREN BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA**

*Oroitidazkian* agertzen diren Balantzea eta Galdu-Irabazien kontua PKF ATTEST auditoria enpresak ikuskatu ditu.

2017ko ekitaldiari dagokion ikuskaritza lanaren ondorioz, ATTESTek ziurtatu du Euskaltzaindiaren 2017. urteko kontuek arlo esanguratsu guztietan erakundearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dutela, baita 2017ko abenduaren 31n bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiarekin bat etorritik, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipio eta arauekin.

Urte amaierako Balantzea Euskaltzaindiko ondarearen egoera azaltzen duen agiria da, eta Akademiak daukan ondasunen zerrenda zehazten du (Aktiboa), ondare hori finantzatzeko beharrezkoak diren baliabideekin batera (Pasiboa).

Aktiboak erakundeak dituen ondasunak (eraikuntzak, instalazioak, izakinak, dirua...) erakusten ditu.

Pasiboan aktiboan bildutako ondasunen finantzaketa iturriak zehazten dira: erakundearen ondare garbia, hornitzaileak, bankuak...

Urteko Emaitzen Kontuak Euskaltzaindiak erreferentziako ekitaldian izandako diru-sarrerak eta gastuak islatzen ditu, eta bien arteko aldea ekitaldiaren emaitza da. 2017ko ekitaldiari dagokionez, hauek dira ondoriorik adierazgarrienak:

1.- Euskaltzaindiak ekitaldi orekatua izan du. Jasotako eta gastatutako kopuruak berdintsuak izan dira.

2.- Diru-sarreraren zenbatekoari dagokionez, 2017. urtea aurrekoen antzekoa izan da, guztietan diru-sarrerak 2,6 milioi euro ingurukoak izan baitira. Aurreikus daiteke diru-sarrerak egungo mailan egonkortu direla eta, ondorioz, Euskaltzaindiaren ohiko jarduerari dagokionez ez dela igoera esanguratsurik izango ondorengo urteetan. Testuinguru honetan, Akademiak lehentasunak zehaztu ditu, kostuak doitu ditu eta gastuetako kontu-sail guztietan efizientzian oinarritutako kudeaketa-eredua ezarri du. Hori guztia bere proiektu eta ekimen berezietarako finantzaketa-iturri berriak bilatzearen beharra ahaztu gabe.

3.- Zailtasunak zailtasun, Euskaltzaindiak 2017. urterako aurreikusitako programa bete du, eta Euskaltzaindiaren Mendeurrenako 2018ko urte honetan ere bide beretik jarraitu nahi du, ematen dituen zerbitzuen eta bultzatzen dituen ekimen eta egitasmo guztien bitartez gizarteari balio erantsia emanaz.





2017. urtea

EUSKALTZAINDIA

Balantzea (Eurotan)

AKTIBOA	2017/12/31	2016/12/31	PASIBOA	2017/12/31	2016/12/31
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>635.190</b>	<b>712.925</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>1.477.186</b>	<b>1.544.413</b>
<b>Ibilgetu ukiezina</b>	<b>8.062</b>	<b>13.867</b>	<b>Fondo propioak</b>	<b>1.146.022</b>	<b>1.185.802</b>
Patenteak, lizentziak, markak eta antzerakoak	2.575	4.871	Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.147.494	1.187.058
Aplikazio informatikoak	5.487	8.996	Ekitaldiko soberakina	(1.472)	(1.256)
<b>Ibilgetu materiala</b>	<b>596.527</b>	<b>668.457</b>	<b>Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak</b>	<b>331.164</b>	<b>358.611</b>
Lurrak eta eraikuntzak	482.908	531.471			
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	113.619	136.986			
<b>Epe luzeko finantza-inbertsioak</b>	<b>30.601</b>	<b>30.601</b>			
Beste aktibo finantzarioak	30.601	30.601			
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>1.348.571</b>	<b>1.203.326</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>506.575</b>	<b>371.838</b>
<b>Izakinak</b>	<b>14.912</b>	<b>19.341</b>	<b>Epe laburreko zorrak</b>	<b>115.103</b>	<b>5.451</b>
Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak	4.289	7.696	Beste pasibo finantzarioak	115.103	5.451
<b>Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</b>	<b>608.037</b>	<b>673.797</b>	<b>Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak</b>	<b>391.472</b>	<b>366.387</b>
Hainbat zordun	16.550	50.804	Hornitzaileak	146.597	118.403
Zordunak, Herri Aginteak	591.487	622.993	Langileria	6.109	13.380
<b>Epe laburreko finantza-inbertsioak</b>	<b>800</b>	<b>800</b>	Hartzekodunak, Herri Aginteak	238.766	234.604
<b>Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b>	<b>720.533</b>	<b>501.692</b>			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.983.761</b>	<b>1.916.251</b>	<b>PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA</b>	<b>1.983.761</b>	<b>1.916.251</b>



2017. urtea

EUSKALTZAINDIA

Galdu-irabazien kontua (eurotan)

<b>EKITALDIA</b>	<b>2017</b>	<b>2016</b>
<b>Erakundearen berezko jardueraren sarrerak</b>	<b>2.551.424</b>	<b>2.644.674</b>
Salmentak, promozioak eta lankidetzazko hitzarmenak	43.924	58.042
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak	2.507.500	2.586.632
<b>Diru-laguntzengatiko gastuak</b>	<b>(1.720)</b>	
<b>Ekoizkin bukatuen eta fabrikazioan dauden ekoizkinen aldaketa</b>	<b>(4.429)</b>	<b>5.884</b>
<b>Ustiapeneko bestelako sarrerak</b>	<b>27</b>	<b>86</b>
<b>Pertsonal gastuak</b>	<b>(1.372.028)</b>	<b>(1.478.585)</b>
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.050.813)	(1.064.546)
Gizarte-zamak	(321.215)	(414.039)
<b>Ustiapeneko bestelako gastuak</b>	<b>(1.082.586)</b>	<b>(1.091.748)</b>
Kanpoko zerbitzuak	(1.082.213)	(1.089.830)
Tributuak	(537)	(1.899)
Merkataritza eragiketatik datozen horniduren aldaketak, hondatzeak eta galerak	164	(19)
<b>Ibilgetuen amortizazioa eta hondatzea</b>	<b>(114.764)</b>	<b>(102.634)</b>
<b>Ekitaldiko soberakinari intsuldatutako kapitaleko diru-laguntzak</b>	<b>27.454</b>	<b>27.424</b>
<b>USTIAPENENKO SOBERAKINA</b>	<b>3.378</b>	<b>5.101</b>
<b>Sarrera finantzarioak</b>	<b>107</b>	<b>90</b>
Balore negoziagarriak eta bestelako finantza-tresnak	107	90
Horniduren eguneratzea	-	-
<b>Gastu finantzarioak</b>	<b>(4.957)</b>	<b>(6.447)</b>
Hirugarrenen zorrenak	(4.957)	(6.447)
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA</b>	<b>(4.850)</b>	<b>(6.357)</b>
<b>EKITALDIKO SOBERAKINA</b>	<b>(1.472)</b>	<b>(1.256)</b>



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE